

Diru-sarrera nagusia saio indibidualetatik ateratakoa izango da. Bezeroek saio bakoitzeko ordain dezakete, eta prezioa saioaren iraupenaren, zailtasunaren edo helburuaren arabera finkatu daiteke.

- 1 saio = 40€ (30 minutuko saioa).

Modu berean, taldeko saioak prezio baxuagoa izango du, baina parte-hartzaile gehiago bilduz gero, diru-sarrera gehigarriak lortzen dira. Talde-saioak talde handientzako edo erakundeentzako eskaintza izan daitezke.

- Taldeko saio bat (5-10 pertsona) = 150€ (saioa). Iraupena ordu 1

Eskaintza eta promozioak egingo ditugu ditzakegu, lehen saioa doakoa edo %50eko deskontua eginez. Pakete promozionalak egitea beste sistema mota izan daiteke diru-sarrerak lortzeko, hau da, bezeroek lehenik saioen kopuru jakin bat erosten dute (adibidez, 10 saio) eta ordainketa osoa edo zatikatua egiten dute.

- 10 saio paketea = 350€ (35€ saio bakoitzeko) eta iraupena 5 ordu.

Ospitaleak, eskolak edo bestelako osasun erakundeek musikoterapia saioak eska ditzakete langileei edo erabiltzaileei emateko. Horrek kontratatutako saio kopuru handiagoa dakar eta, beraz, diru-sarrera gehigarriak.

- 1 hilabete (20 saio) ospitale batekin = 800€. Iraupena 10 ordu.

Instrumentu dendekin kolaboratzean, diru-sarrerak lortuko genituzke saltzen duten instrumentu bakoitzakoaren ehuneko bat lortuz.

- Metalezko agogó-a + kaxa txinatarra= $(50+30=80) \%30= 24$ euro.

Baita ere, publizitate kanpainak ere diru-sarrerak izan daitezke, batez ere webgunean edo sare sozialetan jarraitzailerik handiena duten kontuetan.

Alde batetik, banakako saioak izango ditugu, hauetan, haur bakoitzaren behar espezifikoetara bideratutako terapia pertsonalizatuak eskainiko ditugu. Bestalde, taldeko saioak izango ditugu, merkeagoak izaten direla pertsonako, pertsona kopurua handiagoa delako.

Banakako saio bakoitzeko tarifa aldatu egin daiteke eskualdearen eta musikoterapeutaren esperientziaren arabera. Taldeko saioak merkeagoak izaten dira pertsonako, baina bezero gehiagori behin bakarrik arreta emateko aukera ematen dute, eta horrek diru-sarrera globalak areagotu ditzake.

Online ordainketa-sistema izango dugu, gurasoei erosotasuna erraztuz.

Musikoterapia-zentro baten irabazi ekonomikoak nabarmen alda daitezke hainbat faktoreren arabera: negozio-eredua, eskainitako zerbitzuak, komunitatearen eskaria eta langileen esperientzia, besteak beste.